# BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZARAKO ERROLDA

## Nafarroan BOE edo PTE bat eskuratzeko bide bakarra




vinsa
Viviendas de Navarra S.A.

Nafarroako
Gobernua

## ZER DA ERROLDA?

Foru Komunitatean babes ofizialeko etxebizitza eskuratu nahi duten pertsona guztiek izena eman behar duten erregistroa da.

Tresna horren bidez esleituko dira babes ofizialeko etxebizitza guztiak, sustatzaile ofizialenak izan (VINSA) edo sustatzaile pribatuenak izan.

· Sistema horrek eskatzailea baremo baten arabera sailkatu eta **hiru hilero esleitzen ditu etxebizitzak. Ekainaren 1ean, irailaren 1ean, abenduaren 1ean eta martxoaren 1ean.**

· Erroldak etxebizitza eskatzeko prozesua arintzen du. Aurrerantzean, ez duzu sustapen bakoitzean izena eman beharrik izango. Orain, **behin bakarrik izena emanez, babes ofizialeko etxebizitzen zozketa guztietan parte hartzeko aukera izango duzu.** Gainera, zure lehentasunak erraz aldatu ahal izango dituzu, berriro izena emateko premiarik izan gabe. Eta zure egoera pertsonala aldatzen denean baino ez dituzu eguneratu beharko zeure datuak.

· Izena emateko prozesuak **ez du mugaeperik** eta, ondorioz, nahi duzunean eman ahal izango duzu izena.

# EROSTEKO BAREMOA

*Jabetza eta Erosteko Aukeradun Alokairua eskuratzeko Baremo Bakarra, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen arabera.*

### 1. Etxebizitza izateko premia
(55 puntu gehienez)
B, C, D, E eta F ataletako puntuazioak ezin dira metatu.

**A)** Eskaera sinatzen duten eskatzaile bakoitzeko eta haien familia-unitateetako partaide bakoitzeko.

**7 PUNTU**

**B)** Prezio libreko etxebizitza desegoki baten edo pertsona desgaituentzako egokitu gabe dagoen etxebizitza baten jabe izateagatik (ikus erantsitako taula).

| Etxebizitza desegokitzat onartzeko baldintzak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Zenbat pertsona | 1 edo 2 | 3 | 4 | 5 edo 6 | 7 | 7+n |
| Bizitza librean, azalera erabilgarria hau baino txikiagoa: | 30 $m^2$ | 50 $m^2$ | 65 $m^2$ | 80 $m^2$ | 90 $m^2$ | 90 $m^2$ +10*n |

**12 PUNTU**

**C)** Alokairuko Sistema Publikoaren barruan alokairu-kontratu bat sinatuta edukitzeagatik.

**10 PUNTU**

**D)** Alokairuko Sistema Publikotik kanpo alokairu-kontratu bat sinatuta edukitzeagatik.

**5 PUNTU**

**E)** Etxebizitza berean beste familia-unitate batzuekin batera bizi izateagatik.

**2 PUNTU**

**F)** Legearen barruan, alokairuko etxebizitza batean kontraturik gabe, lagata edo partekatuta bizi izateagatik.

**2 PUNTU**

### 2. Familia-unitatean % 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa onartuta duten pertsona desgaitu bat edo batzuk izatea.

**A)** Pertsona bat.

**5 PUNTU**

**B)** Pertsona bi edo gehiago badira.

**10 PUNTU**

*Pertsona desgaituentzako berariazko erreserban, etxebizitza-premiagatik eman daitekeen gehieneko puntuazioari erantsiko zaizkio 10 puntu horiek eta, ondorioz, 65 puntu ere izan litzake.*

### 3.1. Ohiko etxebizitza erosteko Etxebizitza Aurrezki Kontu baten titularra izatea (16 puntu gehienez)

**A)** Kenkaria aplikatzeko eskubidea duen Etxebizitza Aurrezki Kontuaren titularra izateagatik, bertan 6.000,00 € baino gehiago izanik

**4 PUNTU**

**B)** Zerrendan duen antzinatasuneko urte bakoitzagatik, 16 puntu gehienez.

**2 PUNTU**

### 3.2 Bikote egonkorra deuseztatu duten pertsona banatuak edo dibortziatuak, familiaren etxebizitzaren hipoteka-kargei aurre egiten dietela justifikatzen dutenak
(16 puntu gehienez)

**A)** Bikote egonkorra deuseztatu duten pertsona banatu edo dibortziatuak, familiaren etxebizitzaren hipoteka-kargei aurre egiten dietela justifikatzen dutenak.

**4 PUNTU**

**B)** Ezkontza edo bikote egonkorra deuseztatu zenetik iragan den urte bakoitzagatik.

**2 PUNTU**

### 4. Nafarroan errolda
(Bi urtez baino luzaroago erroldatuta dagoen eskatzailearentzako puntuazioa)

**A)** 4 urtez baino luzaroago eta 7 urtez edo laburrago erroldatuta badago.

**5 PUNTU**

**B)** 7 urtez baino luzaroago erroldatuta badago.

**10 PUNTU**

### 5. Zerga-ordainketa Foru Ogasunean
Azken bost urteetan, Nafarroako Zerga Ogasunean, ezarri beharreko zerga-araudiak agindutako borondatezko epearen baitan eskatzaileek aurkezturiko PFEZ aitorpen bakoitzagatik.

**1 PUNTU**

**Izena emateko unean eraman behar den informazioa**

**1. D) atala**
Errentatzailearen izen-abizenak

Errentaren zenbatekoa

**3. Atala**
Etxebizitza Kontua ireki zen data
Ezkontza edo bikotea hautsi zen data

**4. Atala**
Nafarroan erroldatuta emandako urteak
☐ lau urte baino gutxiago ☐ lau urte baino gehiag
☐ zazpi urte baino gehiago

**5. Atala**
Zehaztu errenta-aitorpena borondatezko epean egin ote den:
☐ 2009 ☐ 2008 ☐ 2007 ☐ 2006 ☐ 2005

*Puntuetan berdinketa egonez gero, diru-sarrera haztatu txikienak dituen eskatzailea lehenetsiko da.

# ESKATZAILEEN ZERRENDAN IZENA EMATEKO DATUAK

Bete honako zirriborro hau eta hitzorduaren egunean aurkez ezazu. Ez duzu beste agiririk eraman behar. Teknikariak zure izen-ematea formalizatu ondoren, baldintzak betetzen dituzun ardura-agiria sinatu beharko duzu.

## ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK

### 1. ESKATZAILEA

NAN/AIZ ____ Izen-abizenak ____
Jaiotze-data ____ Egoera zibila ____ Herria ____
Kalea ____ Ataria ____ Solairua ____ Hizkia ____
Herrialdea ____ Posta Kodea ____ Telefonoa ____
Posta elektronikoa ____

### 2. ESKATZAILEA (aukerakoa)

NAN/AIZ ____ Izen-abizenak ____
Jaiotze-data ____ Egoera zibila ____ Herria ____
Kalea ____ Ataria ____ Solairua ____ Hizkia ____ Herrialdea ____
Posta Kodea ____ Telefonoa ____ Posta elektronikoa ____

### AUKERATUKO ZENUKEEN ERRESERBA

Nafarroan errolda > Gaur egun erroldatuta zauden udalerria ____
Udalerri horretan azken errolda hasi zen data ____
% 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak > Desgaitasunaren portzentajea ____
Desgaitasun motor larria duten pertsonak > Desgaitasunaren portzentajea ____
Genero-indarkeriaren biktima diren pertsonak > Epai finkoa dute: bai ☐ ez ☐
Harrera-etxean bizi bazara, zehaztu noiz hasi zaren bizitzen egoitza horretan ____
Terrorismoaren biktima: bai ☐ ez ☐
Familia ugaria > Tituluaren bukaera-data ____ berezia ☐ orokorra ☐

## ONDORENGOAK

| Izen-abizenak | Jaiotze-data | Desgaitasuna: Portzentajea | Motorra | Ezint. Judizi. |
|---|---|---|---|---|
| | | | | bai ☐ ez ☐ |
| | | | | bai ☐ ez ☐ |
| | | | | bai ☐ ez ☐ |
| | | | | bai ☐ ez ☐ |
| | | | | bai ☐ ez ☐ |

## ESKATZAILE BAKOITZAREN DATU EKONOMIKOAK

**1. ESKATZAILEA**

| Zerga-oinarriaren zati orokorra (errenta Nafarroan 507) | Salbuetsitako errentak (errenta Nafarroan 529) | Besterik: elikagaietarako pentsioak eta pentsio konpentsagarriak |
|---|---|---|
| | | |

**2. ESKATZAILEA** (izatekotan)

| Zerga-oinarriaren zati orokorra (errenta Nafarroan 507) | Salbuetsitako errentak (errenta Nafarroan 529) | Besterik: elikagaietarako pentsioak eta pentsio konpentsagarriak |
|---|---|---|
| | | |

## ESKATZAILEAREN LEHENTASUNAK

**ERREGIMENA**

Erosketa ☐ Alokairua ☐ Alokairua, erosteko aukerarekin ☐ *(guztiak aukera ditzakezu)*

*Bete, zeure aukeraren arabera, eskatzen den informazioa (egoki bada), baremoari dagozkion ataletan.*

**MOTA**

BOE ☐
1 aukera ☐ 2 aukera ☐

PTE ☐
1 aukera ☐ 2 aukera ☐

*Erosteko, BOE edo/eta PTE aukera ditzakezu (biak aukeratuz gero, zehaztu lehentasuna); alokairuen kasuan, BOE baizik ezin duzu aukeratu.*

**ZENBAT LOGELA**

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ *Idatzi* **1** *zure lehen aukeran, eta 2 bigarren aukeran (aukerakoa)*

**ESKUALDEAK**

Nafarroa osoa ☐ Iruñerria ☐ Udalerriak ☐ *(zehaztu 5 gehienez)*

*Hiru aukeretako edozein aukera dezakegu, baina udalerriak aukeratzen baduzu, zein udalerri zehaztu behar duzu, gehienez 5. Iruñerria udalerri bakartzat har daiteke, edo bertako udalerriak bereizi.*

| | |
|---|---|
| 1 | 4 |
| 2 | 5 |
| 3 | |

**LEHENTASUNA**

Berria ☐ Erabilia ☐ Bietarik edozein ☐ *(aukera ezazu)*

**ZER LEHENETSIKO ZENUKE?**

Logela-kopurua ☐ Etxebizitza-mota ☐ *(aukera ezazu)*

• Iruñerriko udalerriak: Antsoain, Aranguren, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Zizur Zendea, Eguesibar, Galar Zendea, Huarte, Noain (Elortzibar), Oltza Zendea, Orkoien, Iruñea, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

**Oharra:** Adierazten diren lehentasunak esleituko den etxebizitzarako erabakigarriak izango dira.

# ALOKAIRU-BAREMOA

*Alokairua eskuratzeko Baremo Bakarra, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen arabera.*

**1. Etxebizitza izateko premia**
(55 puntu gehienez)
B, C, D, E eta F ataletako puntuazioak ezin dira metatu.

**A)** Eskaera sinatzen duten eskatzaile bakoitzeko eta haien familia-unitateetako partaide bakoitzeko.

**7 PUNTU**

**B)** Prezio libreko etxebizitza desegoki baten edo pertsona desgaituentzako egokitu gabe dagoen etxebizitza baten jabe izateagatik (ikus erantsitako taula).

| Etxebizitza desegokitzat onartzeko baldintzak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Zenbat pertsona | 1 edo 2 | 3 | 4 | 5 edo 6 | 7 | 7+n |
| Bizitza librean, azalera erabilgarria hau baino txikiagoa: | 30 m² | 50 m² | 65 m² | 80 m² | 90 m² | 90 m² +10*n |

**12 PUNTU**

**C)** Beste familia-unitate batzuen etxebizitzan bizi izateagatik.

**10 PUNTU**

**D)** Banatutako edo dibortziatuko eskatzaile bakoitzeko, etxebizitza baten edo zati baten titularra izan arren, gutxienez bi urtez erabiltzeko aukera ez duenean.

**10 PUNTU**

**E)** Gutxienez hiru urtez uzteko data finkoa daukan etxebizitza batean bizi izateagatik, beti ere eskatzaileari egotz ezin dakizkion arrazoiak ez badaude tartean, eta alokairu-kontratu bateko kontratua bukatzeagatik eta errentatzailearen esku dauden luzapenak amaitu direlako ez bada.

**8 PUNTU**

**F)** Idatziz eta legez, errenta-kontratu bat izateagatik.

**5 PUNTU**

**2. 35 urteko edo gutxiagoko, eta 65 urteko edo gehiagoko eskatzaile bakoitzagatik.**

**5 PUNTU**

**3. Familia-unitatean desgaitasun-maila onartuta duten pertsona desgaitu bat edo batzuk izatea.**

**A)** % 33ko desgaitasun maila baino handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa duen pertsona bakoitzeko.

**5 PUNTU**

**B)** % 65eko desgaitasun maila edo handiagoa duen pertsona bakoitzeko.

**10 PUNTU**

**4. Aurrekoak**

**A)** Eskatzailearekin bizi den eta PFEZn aitorpenean kenkaria ezartzeko eskubidea duen lehen graduko aurreko bakoitzeko.

**2 PUNTU**

**5. Genero-indarkeriaren biktimak**

**A)** Harrera-etxeetan, etxebizitzetan, egoitzetan edo antzekoetan bizi izateagatik, etxebizitza esleitzeko prozedura hasi aurreko sei hilabeteetan gutxienez.

**5 PUNTU**

**6. Nafarroan errolda**
(Bi urtez baino luzaroago erroldatuta dagoen eskatzailearentzako puntuazioa)

**A)** 4 urtez baino luzaroago eta 7 urtez edo laburrago erroldatuta badago.

**5 PUNTU**

**B)** 7 urtez baino luzaroago erroldatuta badago.

**10 PUNTU**

**Izena emateko unean eraman behar den informazioa**

**1. E) atala**
Etxebizitzan bizi izaten hasitako data

**1. F) atala**
Errentatzailearen izen-abizenak

Errentaren zenbatekoa

**4. Atala**
Aurrekoaren identifikazio-datuak
(NAN/NIF, izen-abizenak)

**6. Atala**
Nafarroan erroldatuta emandako urteak
Iau urte baino gutxiago ☐ Iau urte baino gehiago ☐
zazpi urte baino gehiago ☐

*Puntuetan berdinketa egonez gero, diru-sarrera haztatu txikienak dituen eskatzailea lehenetsiko da.

## NORK EMAN DEZAKE IZENA ERROLDAN?

**Baldintza pertsonalak**
Eskatzaileen erroldan izena emango duten pertsonek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Adin nagusiak izan behar dute.

2. Nafarroako udalerriren batean erroldatuta egon behar dute, eta benetan bertan bizi.

3. Egoitza-baimena izan behar dute, agiri hori beharrezkoa denean.

**Etxebizitzaren titulartasunari buruzko baldintzak**
Eskatzaileen erroldan izena emango dutenek, eta haren familiako kide guztiek, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Ezin dute eduki beste etxebizitza baten, edo etxebizitza-zati baten, jabetza-titulartasunik edo erabiltzeko benetako eskubiderik, ez bada desegokitzat hartua izateko baldintzak betetzen dituela etxebizitza horrek.

2. Azken bost urteetan ezin izan dute beste etxebizitza baten, edo zati baten, jabetza edo erabiltzeko eskubidea besterendu, ez bada besterentze horrek 90.000 euro baino diru-sarrera murritzagoak ekarri dituela.

**Ahalmen ekonomikoari buruzko baldintzak.**

**1.** Gutxieneko diru-sarrerak (2009ko errentaren aitorpenean):

**BOE**
Alokairua:
3.000 euroko zerga-oinarri kotizagarria, gehi salbuetsitako errentak. Salerosketa:
12.000 euroko zerga-oinarri kotizagarria, gehi salbuetsitako errentak.

**PTE**
Salerosketa:
15.000 euroko zerga-oinarri kotizagarria, gehi salbuetsitako errentak. Ez dute gutxieneko diru-sarrerarik bermatu beharko desgaitasun motor larriak dituztenentzako etxebizitzak eskatu dituzten pertsonek, % 65tik gorako desgaitasuna onartuta dutenek eta genero-indarkeriaren biktimek.

**2.** Gutxieneko diru-sarrerak (2009ko errentaren aitorpenean):

| Familia-unitatea | 2009ko zerga-oinarri kotizagarriaren zati orokorra (507 laukia), gehi salbuetsitako errentak | |
|---|---|---|
| | BOE (4,5 bider OAEAP) | PTE (6,5 bider OAEAP) |
| 1 pertsona | 39.262,39 € | 56.712,35 € |
| 2 pertsona | 47.114,87 € | 68.054,82 € |
| 3 pertsona | 50.480,22 € | 72.915,87 € |
| 4 pertsona | 53.539,63 € | 77.335,02 € |
| 5 pertsona | 56.993,80 € | 82.324,37 € |

## ZER EGIN BEHAR DUT IZENA EMATEKO?

Babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaileen erroldan izena emateko bi bide daude:

**Telematika bidez:**
· Sartu www.vivienda.navarra.es web-atarian (www.navarra.es) edo www.vi helbidetik ere sar zaitezke.

· Sartu “babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaileen errolda” aukeran.

· Inprimakia bete, zeure lehentasunak ezarri, eta NAN elektronikoaren bidez sinatu (www.navarra.es web-gunean, zerbitzuen katalogoan, ikus dezakezu onartzen diren egiaztagiri digitalen zerrenda).

**Bertaratuz**
1. 012 telefonoan, www.vivienda.navarra.es helbidean, www.vinsanavarra.es helbidean, Iruñeko herritarrentzako harrera-bulegoan (Orreaga etorbidea, ) edota Tuterakoan (Foruen Plaza -), hitzordua eskatuz.

2. Liburuxka honi atxikitako zirriborroa bete (www.vivienda.navarra.es eta www.vinsanavarra.es helbideetan ere har dezakezu).

3. Hitzordua duzun egunean, izena emateko tokian zirriborroa aurkeztu eta baldintzak benetan betetzen direla onartzen duzun adierazpena sinatu behar duzu.

**Izena emateko tokiak:**

· Iruñean, VINSAren bulegoetan (San Jorge Etorbidea 8, behea).

· Tuteran, Herritarrentzako Arreta Bulegoan (Foruen Plaza, 5-6).

Izena eman ondoren, nahi duzunean zeure lehentasunak aldatzeko aukera izango duzu, on-line edo beste hitzordu bat eskatuz. Gainera, hasieran eman dituzun datuak aldatzen badira (familia-egoera aldatzea, helbidea aldatzea...), eguneratzeko aukera izango duzu.

vinsa
Viviendas de Navarra S.A.

Nafarroako
Gobernua

Informazio gehiago: **www.vivienda.navarra.es** eta **www.vinsanavarra.es**